



SAN ROKE 2024 KARTEL LEHIAKETA

San Roke jaiak 2024 iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Debako Udalak.

1.- Gaia eta kartelaren testua:

San Roke 2024, abuztuak 14-18 DEBA, izango da kartel guztietan azalduko den testua. Era berean, Debako logotipoa konposizioan integratuta eramango du (goian azaltzen dena).

2.- Parte-hartzea:

Nahi duen orok parte har dezake. Obrak, ideia nahiz edukiari dagokionez, originalak izan beharko dute derrigor, eta jendaurrean aurkezteko modukoak. Plagio edo kopia susmorik sortuko balitz, epaile taldeak erabakiko luke proposamena onartu ala baztertzea eta erabakia apelaezina izango litzateke.

3.- Tamaina:

Original guztien neurri bertikala 50 x 70 zentimetrokoa izango da.

4.- Kolorea eta teknika:

Aukerakoa. Ordenagailuz eginez gero, inprimatutako bertsioaz gain, kartelaren euskarri informatikoa ere aurkeztu beharko da. Kasu honetan goi-mailako erresoluzioko artxiboa izango da eta, gutxienez, 300ppp. izango ditu.

5.- Aurkezteko eguna:

Ekainaren 27a izango da, 14:00ak arte.

6.- Aurkezteko lekua:

Portu Kalea 1 - Harrera bulegoan, 10:00-14:00 astelehenetik ostiralera.

7.- Identifikazioa:

Kartela euskarri gogorrean eta behar bezala estalita aurkeztuko da. Kanpoaldean egilearen lema jarriko da. Lan bakoitzarekin batera kartazal itxi bat entregatuko da.

Kartazalaren barruan egilearen izen-deiturak, posta elektronikoa eta telefonoa adieraziko dira eta kanpoaldean kartelaren lema.

8.- Informazioa:

943-192840 / kultura@deba.eus / Debako Udala, Portu kalea 1 Deba.

9.- Saria:

500 euroko sari bakarra izango da. Sari honi dagokion erretentzioa egingo zaio.

10.-Epaimahaia:

Kultura Departamentuak izendatuko du, emakumeen eta gizonen ordezkariak parekatua izango dela bermatuta.

11.- Erabilitako irudiek generoen arteko oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez.

12.- Erakusketa:

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztien artean epaile taldeak aukeratutako sail bat jendaurrean erakutsiko da, Udaleko osoko bilkuran.

13.- Aukeratutako lan hauen artean aterako da irabazlea, herritarren botoek erabakita. Botoak osoko bilkuran bertan emango dira. Aurretik iragarriko dira erakusketaren datak.

14.- Lanak noiz jaso:

Saririk irabazi ez duten originalak aurkeztu ziren lekuan bertan jaso ahal izango dira 2024ko abuztuaren 1etik 5era. Epe horretan jaso ez direnekin udalak ez du inolako ardurarik izango.

15.- Saritutako kartela eta beronen era guztietako erreproduzio eskubideak Debako Udalaren jabetzapean geratuko dira. Hauek egoki deritzon publizitate lanetan ere erabili ahal izango ditu.

Kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, ez eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru kopururik jasotzeko ere. Gainera, saritutako lanak eduki ditzakeen jabetza intelektualaren gaineko eskubide guztiak Debako Udalari emandakotzat joko dira, inolako kontraprestaziorik gabe.

16.- Udalak ez du bere gain hartzen lehiaketara aurkeztutako lanei gerta dakiekeen edonolako kalteren erantzukizuna.

17.- Lehiaketan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea dakar berekin.